

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZUMARRAGAKO UDALA

Iragarkia

Zumarragako aparkaldi mugatuko zonak arautzeko Ordenantzaren hasierako onespena emateko espedientea jende aurrean ikusgai egoteko epea amaiturik, behin betiko onartutaz ematen da, ez baita alegaziorik aurkeztu, eta behin betiko onartzen da ondoko erredakzioarekin.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikulua xedatutakoaren arabera, Araudi hau indarrean hasiko da testua erabat argitaratu ondoren eta aipatutako Legearen 65.2 artikuluan aurreikusten den 15 egun balioduneko epea pasa ondoren.

Eta hau argitaratzen da guztiei jakinarazteko.

Aparkaldi mugatuko zonak arautzeko Ordenantza

XEDEA

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea trafikoa antolatzen eta hobetzen laguntzea da. Horretarako, bide publiko batzuetan ibilgailuak aparkatzeko espazio eta denbora aldetiko mugak ezarriko ditu, muga horiek betetzen direla bermatzeko neurriekin batera.

2. artikulua.

Ordenantza honek arautuko duen «Lehentasunez Jarduteko Bide Mota» bat definitzen da; horrelakoei bide urdin deituko zaie.

BIDE URDINAK

3. artikulua.

Bide urdinak Babes Bereziko Hirigune deitutako zonaren perimetroa dira, ekipamendu komertzial handienekoak eta erakarmen handienekoak eta, beraz, Lehentasunezko Arreta behar dutenak.

Bide urdinean sartutako kale batean ibilgailu bat aparkatzeko gehieneko denbora ordu eta erdikoa izango da, egun bakoitzerako ezartzen den ordu-epe bakoitzaren barnean. Epe hori igarotzen denean, ibilgailua ezingo da kale berean eta ordu-epe berean aparkatu.

Bide urdinak eta horien barnean ordenantza honek eragiten dien aparkaleku-plazak honakoak izango dira:

1. Soraluze kalea (9 aparkaleku-plaza zenbaki bikoitien aldean).
2. Euskadi enparantza (25 aparkaleku-plaza).
3. Legazpi kalea (16 aparkaleku-plaza) zenbaki bikoitien aldean.
4. Piedad kalea (20 aparkaleku-plaza zenbaki bikoitien aldean).
5. Bidezar (7 aparkaleku-plaza zenbaki bikoitien aldean eta 2 zenbakitik 6ra, eta 15 aparkaleku-plaza zenbaki bikoitien aldean eta 7 zenbakitik 17ra).

AYUNTAMIENTO DE ZUMARRAGA

Anuncio

Transcurrido el plazo de exposición pública al que ha sido sometido el expediente relativo a la aprobación inicial de la Ordenanza reguladora de las zonas de estacionamiento limitado de Zumarraga, sin que se hayan producido alegaciones, se considera aprobado definitivamente, con la siguiente redacción.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen local, la presente Ordenanza entrará en vigor una vez publicado completamente su texto y haya transcurrido el plazo de 15 días hábiles previsto en el artículo 65.2 de la citada Ley.

Lo que se hace público para general conocimiento.

Ordenanza reguladora de las zonas de estacionamiento limitado

OBJETO

Artículo 1.

Esta Ordenanza tiene por objeto ayudar a ordenar y mejorar el tráfico, mediante la limitación espacial y temporal del estacionamiento de vehículos en ciertas vías públicas, así como el establecimiento de medidas para garantizar su cumplimiento.

Artículo 2.

Se define una «Clase de Vía de Actuación Preferente» regulada por esta Ordenanza que se denomina vías azules.

VÍAS AZULES

Artículo 3.

Las vías azules constituyen el Perímetro de la Zona Centro de Protección Especial, las de mayor equipamiento comercial y las de mayor atracción y, por tanto, de Atención Preferente.

El periodo máximo de estacionamiento de un vehículo en una calle incluida dentro de la vía azul, será de una hora y media en cada uno de los periodos horarios que se establezcan para cada día. Transcurrido este plazo, el vehículo no podrá estacionarse en la misma calle y en el mismo periodo horario.

Se designan como vías azules las siguientes con indicación de las plazas de estacionamiento legal afectadas por esta Ordenanza:

1. Soraluze kalea (9 plazas en el lado de los números pares).
2. Euskadi enparantza (25 plazas).
3. Legazpi kalea (16 plazas) en el lado de los números pares.
4. Piedad kalea (20 plazas en el lado de los números impares).
5. Bidezar (7 plazas en el lado de los números pares y desde el número 2 al 6) y (15 plazas en el lado de los números impares y desde el número 7 al 17).

6. Elizkale (6 aparkaleku-plaza parrokiaren aldamenean).
7. Iparragirre hiribidea, 1 (3 aparkaleku-plaza).

4. artikulua.

Aparkatzeko denbora-mugatik kanpo daude honakoak:

- a) Motozikletak, ziklomotorrak eta bizikletak. Horrelakoek, betiere, propio prestatutako lekuetan aparkatu beharko dute, horrelakorik baldin badago. Eta ez badago, 2 gurpileko ibilgailu horiek espaloi eta pasealekuetan aparkatu ahal izango dute, baldin eta kaltetzen eta eragozten ez bada oinezkoak horietatik ibili ahal izatea, betiere kontuan hartuta bolumen handiko gauzaren bat daramatenen beharrak eta, bereziki, desgaitasunen bat duten pertsonenak.
- b) Bere kategoria edo jarduerarako gordetako zonetan aparkatutako ibilgailuak.
- c) Auto-taxi ibilgailuak, gidaria bertan eta zerbitzuan denean.
- d) Lehenetsuna duten ibilgailuak -osasan laguntza, publiko eta pribatua, suhiltzaileak, babes zibileko eta salbamenduak eta polizia zerbitzua- zerbitzua ematen ari direnean.
- e) Elbarrien jabetzako ibilgailuak, horientzat gordetako plazetan, titularrek gidatzen dituztenean eta eskumena duen organoak ematen duen baimen berezia daukatenean.
- f) Hileta-ibilgailuak, zerbitzua ematen ari direnean.
- g) Beste edozein ibilgailu, dagokion espediente aurrez bideraturik egiaztatzen denean araubide berezi hau aplikatu behar zaiola eta udalak ere baimena ematen badu.

KONTROLA

5. artikulua.

Udaltzaingoak, bere agenteen edo laguntzaileen bitartez, kontrol lanak egingo ditu aparkaldi mugatuko zonetan.

Aparkatu den ordua justifikatzen duen agiria emateko makinari jartzen badu Udalak, derrigorra izango da agiri hori ibilgailuaren barnean aurrealdean uztea, hain zuzen kanpotik ikusi eta irakurri ahal izateko ibilgailua noiz eta zer ordutan aparkatu den.

ORDAINKETA

6. artikulua.

Ez da inolako tasarik ordainaraziko, eta ez da inolako kantiaterik ordaindu beharko udal ordenantza hau dagokion zonetan aparkatzeagatik.

ZEHAPEN ARAUBIDEA

7. artikulua.

Ordenantza honetako artikuluetako edozein urratzea eta/edo ordenantzari dagokionez udalaren organo eskudunak emandako ebazpenak urratzea trafikoa ordenatzeko arauak haustea izango da, eta legez ezarritako prozedurari jarraikiz zigorak ezartzea izango du ondorio.

Arau hauste arinak izango dira:

1. Baimendutako aparkaldia gainditzea.
2. Kale berean behin eta berriro aparkatzea denbora-tarte bakoitzeko gehieneko aparkaldia gainditu eta gero.
3. Aparkaleku-plazaren perimetrotik kanpo aparkatzea beste plaza bat edo batzuk erabiltzea eragotziz.

6. Elizkale (6 plazas junto al lateral de la parroquia).
7. Iparragirre hiribidea, 1 (3 plazas).

Artículo 4.

Quedan excluidos de la limitación del tiempo de estacionamiento:

- a) Las motocicletas, los ciclomotores y las bicicletas, que deberán, en todo caso, estacionar en los lugares habilitados al efecto, si los hubiere. Si no los hubiere, estos vehículos de 2 ruedas podrán hacerlo sobre las aceras y paseos siempre que no se perjudique ni se entorpezca el tránsito de los peatones por ellas, atendiendo a las necesidades de aquellos que puedan llevar algún objeto voluminoso y, especialmente, las de aquellas personas que tengan alguna discapacidad.
- b) Los vehículos estacionados en zonas reservadas para su categoría o actividad.
- c) Los vehículos auto taxi cuando el conductor esté presente y en servicio.
- d) Los vehículos prioritarios -asistencia sanitaria, pública y privada, extinción de incendios, protección civil y salvamento y servicio de policía- cuando estén prestando servicio.
- e) Los vehículos propiedad de minusválidos, en las plazas reservadas, cuando sean conducidos por sus titulares y estén en posesión de la correspondiente autorización especial que expida el Órgano competente.
- f) Los coches funerarios, cuando estén prestando servicio.
- g) Cualquier otro vehículo cuando, previa instrucción del oportuno expediente, se acredite la necesidad de acogerse a este régimen excepcional y así lo autorice el Ayuntamiento.

CONTROL

Artículo 5.

La Policía Local, a través de sus propios Agentes o Auxiliares de esta, será la encargada del control del aparcamiento en las zonas de estacionamiento limitado.

En el caso de que el Ayuntamiento implantara máquinas de expedición del comprobante que justifique la hora en la que se ha estacionado, será obligatorio dejar dicho comprobante en la parte interior y delantera del vehículo de tal forma que sea visible y legible desde el exterior el día y hora en que se ha efectuado el estacionamiento.

PAGO

Artículo 6.

No se exencionará tasa alguna, ni deberá efectuarse pago de cantidad por razón del estacionamiento en las zonas a que se refiere la presente Ordenanza Municipal.

RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 7.

La infracción de cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza, así como de las resoluciones en relación con la misma dictadas por el Órgano competente del Ayuntamiento tendrá la consideración de infracción a las normas de Ordenación de tráfico y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido,

Se consideran infracciones leves:

1. Rebasar el tiempo de permanencia autorizado.
2. Estacionar sucesivamente en la misma calle una vez finalizado el período máximo de estacionamiento en cada intervalo de tiempo.
3. Estacionar fuera del perímetro de la plaza señalizada inutilizando otra u otras plazas.

4. Aparkaldiaren ordu-egiaztagiria emateko makinarik baldin badago, makinaren tiketa ez jartzea ibilgailuaren barnean aurrealdean, hain zuzen kanpotik ikusi eta irakurri ahal izan dadin ibilgailua zer egun eta ordutan aparkatu den.

Arau hauste larriak izango dira:

1. Baimendutako aparkaldia halako biko denbora baino gehiago ematea aparkatuta.

8. artikulua.

a) Aurreko artikuluan larrizat jasotako arau haustea geratzen direnean, horiek ondorio izango dute udal agintaritzak berreskuratzea behar ez bezala okupatzen ari den espazio publikoaren erabilgarritasuna. Horretarako, kasuan kasuko ibilgailua kendu eta udal biltegira eramango dute, ezar dadin zigor ekonomikoaz gain inolaz ere (1428/2003 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, 93. art.).

Aurreko paragrafoak aipatzen duen ibilgailua kentze horrek sorrarazten dituen gastuak ibilgailuaren titularraren kontura izango dira, eta gastu horiek ordaindu edo ordainketa bermatu beharko du, ibilgailua itzul dakion baino lehen (6/2015 Legegitzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, 105. art.).

9. artikulua.

Arau haustea zigortzeko jarraitu egingo da 6/2015 Legegitzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoa, Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, bere V. tituluan xedatzen duena, horren osagarri diren bestelako lege xedapenekin batera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.

Ordenantza honek arautzen duen funtzionamendu-epeak urteko lanegun guztiak hartzen ditu, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:00ak arte eta 15:00etatik 21:00ak arte, eta 3. artikuluan aipatzen diren Soraluze, Euskadi Enparantza, Bidezar, Elizkale eta Iparragirre hiribideko aparkaleku-plazei eragingo die. Legazpi eta Piedad kaleetako aparkaleku-plazen kasuan, ordutegia 08:00etatik 14:00ak arte eta 15:00etatik 21:00ak arte izango da astelehenetik ostiralera bitarteko lanegunetan, eta 08:30etik 14:30 arte, berriz, asteko azoka egiten den egunetan.

Bigarrena

Osoko bilkurak erabakiz gero, ordenantzak aldatzeko bete beharreko izapideen beharrik gabe, eta beharrezko txosten teknikoen ondotik, aparkaldi mugaturako egunak eta orduak aldatu ahal izango dira dagoeneko zehaztuta dauden kaleetako edozeinetan.

Era berean, eta prozedura berari jarraituz, 3. artikuluan zehaztatzen diren aparkaldi mugaturako kaleak aldatu ahal izango dira, bai horiek areagotuz, murriztuz, berriak jarritz edo/eta kenduz.

Zumarraga, 2019ko irailaren 1a.—Mikel Serrano Aperribay, alkatea. (5590)

4. En caso de existencia de máquinas expendedoras del comprobante horario del estacionamiento, no colocar el ticket de la máquina en la parte interior y delantera del vehículo, de forma que sea visible y legible desde el exterior el día y hora en que se ha efectuado el estacionamiento.

Se consideran infracciones graves.

1. Rebasar, por tiempo superior al doble, el tiempo de permanencia autorizado.

Artículo 8.

a) Las infracciones tipificadas como graves en el artículo anterior, al constituir entorpecimiento y un grave obstáculo para la ordenación y mejora del tráfico y estacionamiento, determinarán por sí mismas que por la autoridad municipal, se proceda a recuperar la libre disponibilidad del espacio público indebidamente ocupado, retirando dicho vehículo y transportándolo al depósito municipal, con independencia de la sanción económica que se imponga (art. 93 del Real Decreto 1428/2003, de 21 de noviembre).

Los gastos que se originen como consecuencia de la retirada a la que se refiere el número anterior, serán por cuenta del titular, que deberá abonarlos o garantizar su pago como requisito previo a la devolución del vehículo (art. 105 del R.D.Leg. 6/2015, de 30 de octubre).

Artículo 9.

Las infracciones se sancionarán en virtud de lo establecido en el Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, Texto refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de vehículos a motor y Seguridad Vial en su título V y demás disposiciones legales complementarias.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.

El período de funcionamiento regulado por esta Ordenanza es para todos los días laborables del año, en horario de lunes a viernes, de 08:00 a 14:00 horas y de 15:00 a 21:00 horas para las plazas señaladas en el artículo 3 de las calles Soraluze, Euskadi Enparantza, Bidezar, Elizkale e Iparragirre hiribidea. Para las plazas de las calles Legazpi y Piedad el horario será de 08:00 a 14:00 horas y de 15:00 a 21:00 horas para los días laborables de lunes a viernes y de 08:30 a 14:30 horas los días de celebración del mercado semanal.

Segunda.

Por acuerdo del Pleno, sin necesidad se sujetarse a los trámites correspondientes a la modificación de Ordenanzas, previo los oportunos informes técnicos, podrán modificarse los días y las horas en que regirá el estacionamiento limitado para cualquiera de las vías ya determinadas.

Asimismo, y siguiendo el mismo procedimiento, se podrán variar las vías de estacionamiento limitado relacionadas en el artículo 3. Ampliándolas, reduciéndolas, estableciendo nuevas o suprimiéndolas.

Zumarraga, a 1 de septiembre de 2019.—El alcalde, Mikel Serrano Aperribay. (5590)